

La fotógrafa

# Eulalia de Abaitua

1853-1943

Argazkilaria

Los artí  
culos del  
vervicio  
Bilbao  
209 A.



## ERAKUSKETA

2010ko Urriaren 29tik  
2011ko Maiatzaren 29ra

## EXPOSICIÓN

Del 29 de Octubre de 2010  
al 29 de Mayo de 2011



EUSKAL MUSEOA · BILBAO · MUSEO VASCO  
Miguel de Unamuno Plaza, 4 - 48006 Bilbao - [www.euskal-museoa.org](http://www.euskal-museoa.org)

# Eulalia de Abaitua

**E**ulalia Abaitua Bilbon jaio zen 1853ko urtarrilaren 25ean, familia burges batean eta María Elvira Juliana izenarekin bataiatu zuten Bariko San Nikolas elizan. Handik hilabetera hil zen bere ama, M<sup>a</sup> Eulalia Allende-Salazar Eguia eta orduan senitartekoak Eulalia deitzen hasi zitzakion, amaren oriomenez. Aitak, Luis de Abaitua y Adarok, inude bat kontratatu zuen Eulalia eta bere anaia Felipe hazteko. Eulalia osasuntsu eta alai hazi zen, baina pinpirin samarra zenez aitak ilea motz-motz ebatzen zion. Bartzelonako Sagrado Corazón de Jesús de Sarriá eskolan ikasi zuen.

Luis Abaituak odolkidetasun, adiskidetasun eta negozio harremanak zeuzkan Sevillan bizi zen Juan Ygnacio Narciso de Olano mercatariarekin. Hura eta bere emazte Carlota Picavea de Lesaca hil zirenean (1864), Luis izendatu zuten bi seme-alaba gazteen "tutore eta zaintzaile": Juan Narciso eta Ana. Handik aurrera, Eulalia eta Ana lagun min egin ziren eta, gainera, Abaitua eta Olano neba-arreben arteko ezkontzak mamitzan hasi ziren.

1871an, Luis Abaitua Liverpoolen bizi zen bere familiarekin, Slaw Street kaleko 69 zenbakian. Londresko St. Francis Xavier eliza katolikoan ezkondu ziren bi bikoteak 1871ko maiatzaren 16an, Eulalia Juan Narcisorekin eta Felipe Anarekin.

1876an, Luis Abaitua hil ondoren, bi bikoteak Begoñako elizatean hasi ziren bizitzen. Eulalia eta Juan Narcisok hantxe eraiki zuten Palacio del Pino jauregia, Eulaliak aitagandik herentzian jaso zuen 37.200 m<sup>2</sup>ko lursailean. Begoñako Amatxoren santutegiaren ondoan kokatuta dago, Bilbo bere oinetan daukala eta Abra zero-miran. Estilo ingelesko txaleta eraiki zuten, Inglaterratik importatutako materialak erabiliz, croquet zelaia eta gimnasioa zeuzkan lorategi batez inguratuta. Etxe horretan hazi zituen Eulaliak bere lau seme-alabak: Carlota, Andrés, Javier eta Concepción. Gainera, bertan askatu zuen argazkigintzarako zuen grina; laboretagi bat instalatu zuen etxeko sotoan eta bere inguruko mundua islatu zuen. Kalearen beste aldean, Felipe eta Anak antzeko etxe bat eraiki zuten, Abaitua etxea, non familia handitu baitzuten 1899an Felipe hil baino lehen.

Eulaliak Inglaterran deskubritu zuen argazkigintza. Beirazko xafla estereoskopikoak erabiltzen zituen gehien, positiboak zein negatiboak, 4,5x10,7 cm-ko formatuan eta gelatinobromurozko emulsioarekin. Bere familiaren irudiez gain, herri xehea hartu zuen gai nagusitzat, txiroak eta ia beti anonimoak, naturaltsun handiz erretratatu zituelarik.

1909an alargundu ondoren, 1941ean alde egin zuen bere bihotzko Begoñatik eta Bilboko Kale Nagusiko apartamentu batera joan zen, hantxe hil zelarik 1943ko irailaren 16an. Bere gorputua Begoñako hilerriko familia-panteoian datza.



**E**ulalia Abaitua nació en Bilbao el 25 de Enero de 1853, en el seno de una familia burguesa y fue bautizada con el nombre de María Elvira Juliana en la iglesia de San Nicolás de Bari. Al mes moría su madre, M<sup>a</sup> Eulalia Allende-Salazar Eguía, y la familia comenzó a llamarle Eulalia en memoria de su progenitora. Su padre, Luis de Abaitua y Adaro, contrató una para su crianza y la de su hermano mayor, Felipe. Eulalia creció sana y alegre aunque era algo presumida por lo que su padre solía raparle el pelo. Cursó estudios en el colegio del Sagrado Corazón de Jesús de Sarriá de Barcelona.

Luis Abaitua tenía lazos de consanguinidad, amistad y negocios con el comerciante Juan Ygnacio Narciso de Olano, afincado en Sevilla. Tras la muerte de éste y la de su mujer, Carlota Picavea de Lesaca en 1864, Luis fue nombrado "tutor y curador" de sus dos hijos menores: Juan Narciso y Ana. Esta circunstancia favorecerá los estrechos lazos de amistad entre Eulalia y Ana y auspiciará los futuros matrimonios entre los hermanos Abaitua y los Olano.

En 1871 Luis Abaitua residía con la familia en Liverpool, en el 69 de Slaw Street. Será en la iglesia católica St. Francis Xavier de misma ciudad donde se casen Eulalia con Juan Narciso y Felipe con Ana, el 16 de mayo de 1871.

Tras el fallecimiento de Luis Abaitua, sucedido en 1876, los dos matrimonios se trasladan a la anteiglesia de Begoña. Eulalia y Juan Narciso construirán allí el palacio del Pino, en una finca de 37.200 m<sup>2</sup> que Eulalia había heredado de su padre. Enclavada junto al santuario de la Amatxo de Begoña, con Bilbao a los pies y el Abra en el horizonte, levantarán un chalet de estilo inglés con materiales importados de Inglaterra, rodeado de jardín con campo de croquet y gimnasio. En esta casa Eulalia criará a sus cuatro hijos: Carlota, Andrés, Javier y Concepción y dará rienda suelta a su pasión por la fotografía, instalando en el sótano un laboratorio y retratando el mundo que transcurre a su alrededor. Al otro lado de la calle, Felipe y Ana construirán un edificio muy similar, la casa Abaitua, donde ampliarán la familia antes del fallecimiento de Felipe, acaecido en 1899.

Eulalia descubrió la fotografía en Inglaterra. Su material preferido fueron las placas estereoscópicas de vidrio, positivas y negativas, con formato 4,5 x 10,7 cm y emulsión de gelatinobromuro. A parte de las imágenes de su propia familia, su temario principal son las personas sencillas, humildes y casi siempre anónimas, retratadas con extrema naturalidad.

En 1941 Eulalia, viuda desde 1909, dejara su amada Begoña para trasladarse a un piso de la Gran Vía bilbaína donde morirá el 16 de septiembre de 1943. Sus restos descansan en el panteón familiar del cementerio de Begoña.